



Lanean ari gara eta lanean jarraituko dugu

Bizi izan dugun eta bizi dugun egoera honek hainbat ikasbide utzi dizkigu, baita euskararen eta hizkuntza eskubideen esparruan ere. Zoritxarrez, ez oso zapore gozokoak: euskara eta hizkuntza eskubideak bigarren mailan geratu direla ikusi baitugu.

Hedabideei erreparatuta, EITB adibide gisa hartuz, euskararekiko urraketa dezente ikusi ditugu *konfinamendu* garaian. ETB1 izan zen autonomia erkidegoetako kate bakarra programazioa murriztu zuena. ETB2k eta Radio Euskadik ohiko programazioarekin jarraitu zuten bitartean, ETB1ek astegunetako bazkalondoan eskaintzen zituen bi saio desagertu egin ziren, aspaldiko kirol ikuskizunak eskaintzeko. Gauza bera gertatu zen Euskadi Irratian ere; larunbat goizeko *Goiz Kronika*-ko solasaldiaren orde, aspaldi euskal kirolariei eta atzeratu diren Olinpiar Jokoen harira egindako elkarrizketak eskaini zituzten.

Erakundeen erabilera aztertuz gero, gaztelania nabarmen areagotu zela ikusi genuen UEMAK egindako adierazpenei esker.

Beste adibide garbi bat turismoa erakartzeko bideoetan Jaurilaritzak erabili zuen hizkuntza irizpidea izan zen.

Berdina gertatu zen hiritarren eguneroko bizitzan, lanean, erakundeekin harremanetan zein bestelako egoeretan, erakusleihoetan topatu ditugun oharretan eta argibideetan. Denok barneratu dugu edo barnerarazi digute gauza garrantzitsuak gaztelaniaz kontatu behar omen direla. Horren adibide izan da, Donostia osoa gaztelania hutsezko karteletz josita ikustea. Horren adibide izan da establezimenduen irekierarekin batera, Bagera Elkartek ekainean erakusleihoen hizkuntza neurketan ateratako emaitza kezkagarria. Donostia Erdialdeko 4 kale nagusietan behatutako 141 establezimenduetatik %65,96 gaztelania hutsez zituzten COVID 19ari aurre egiteko jarraibideak.

Egoera honek, beste normaltasun orekatu bat behar dugula ikusarazi digu, eta horretan euskarak ere bere ekarpena egin dezakeela ziur gaude. Euskara ardatz duen gizarte bat, gutxitutakoekiko begirunean eta errespetuan oinarritzen delako. Eta ondorioz, gizarte berdinzaleago bat eraikitzeak gakoa da.

Aldi berean, Euskaraldiaren urtea ere izan da. Egoerarik zailenetan ere, milaka lagun hizkuntza ohiturei astindu bat emateko prest agertu da berriro ere. Txapa paparrean, irribarreak ikusten zaila den urtean. Milaka lagun kalean, lanean edo etxean hizkuntzarekiko inertziei aurre egiten eta inguruan aldaketak eragiten ikusi ditugu. Euskararentzat eta guretzat mundu berriak zabaltzen, espazioak euskaraz lasai aritzeko aritzeko gune bihurtzen. Baina, Euskaraldia ez da nahikoa. Egun



batzuetan egindako ahalegin horrek etengabekoa izan behar du, bai herritarren aldetik, eta bereziki, baita erakunde, agintari, enpresa, sindikatu eta, oro har, eragileen aldetik ere.

Beraz, nahiko lan dugu denok norabide berean, elkarlanean eta ilusioz aritzeko!

Bide horretan, Bagera Elkartea osatzen dugun ehunka bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da eta izango da.

Bidea luzea izango den arren, guztion lanari esker lortuko dugu Donostia euskalduna eraikitzea.

Lanean ari gara eta lanean jarraituko dugu.

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea